

DONOSTIAN

# LGTBI+FOBIAREKIN


LOTUTA IZANDAKO

INTZIDENTZIEI BURUZKO TXOSTENA



2023





Egilea:

**Zaira García Dafonte**

Koordinazioa:

**Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoa**

Diseinua eta maketazioa:

**Ytanos Graff S.L.**

**2024ko maiatza**




**DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN**  
Giza Eskubideak  
Derechos Humanos





## **AURKIBIDEA**

Hitzaurrea	<b>5</b>
Sarrera	<b>6</b>
Orientabide batzuk	<b>7</b>
Emaitzak	<b>9</b>
Emaitzak konparatuak	<b>19</b>
Ondorioak	<b>22</b>
Ondorioak 2021, 2022 eta 2023	<b>24</b>
Gomendioak	<b>25</b>
Erreferentziak	<b>28</b>
Eranskinak	
1. Glosarioa	<b>31</b>
2. Intzidentziak jasotzeko txantiloia	<b>36</b>
3. Datu grafikoen taulak	<b>37</b>





## Hitzaurrea

### **Maiatzaren 17a, Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna**

Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, Donostian LGTBI+FOBIarekin lotuta izandako intzidentzien buruzko txostena aurkezten dugu. Zaira García Dafontek egindako azterketa sakona. Bere lana eta dedikazioa eskertu nahi dizkiot.

Nahiz eta herritar batzuek uste duten gai hori ez dela hain garrantzitsua, edo gure gizarteak behar bezala asimilatua dela, azterketa honetako datuek adierazten dute pertsona batzuek, batez ere aisialdian eta espazio publikoan tolerantziaren, errespetuaren eta hezkuntzaren lerro gorri guztiak gainditzen dituzten egoerak jasaten dituztela, eta fisikoki edo hitzez erasotzen dietela berdinak edo "normalak" ez diren pertsoneri, "normaltasuna", definitu ezin den kontzeptua, Giza Eskubideak neurtzeko tresna balitz bezala.

Eraso fisikoak, hitzezkoak, irainak, mehatxuak, kalumniak, hertsapenak eta larderia, kalte moralen eta gorrotoaren delituak, ezjakintasuna, diskriminazioa, lapurretak eta tratu iraingarriaren delituak dira ikerketa honek azaltzen duen katalogo desatsegina, pertsonak beren sexu-joeragatik, adierazpenagatik edo genero-identitateagatik jasaten dituzten ekintzei buruzkoa. Eta nahikoa da.

1990ean, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) homosexualitatea buruko gaixotasunen zerrendatik kendu zuen. Gertaera historikoa izan zen, eta urrats garrantzitsua, sexu-orientazioa eta -identitatea diren bezala onartzen eta errespetatzen has daitezen, hots, gizakiek aniztasunean bizitzeko dituzten eskubideak.

Ezin dugu onartu egunez egun diskriminatuak direnen ikusezintasuna, eta, jakina, ezin dugu gizarte gisa inolako erasorik onartu. Aniztasuna gizakiaren alderdi aberasgarritzat hartzen duen gizartea, erasotzen ez duen eta guztion eskubideak defendatzen dituen gizartearen alde da egunero lan egiten duguna, eta horretan dihardu Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Sailak.

Zerbait ez dago ondo, baldin eta udan eta eremu publikoan gertatzen badira eraso gehien, txosten honen arabera. Horrek esan nahi du gizarteak, guztion espazioetan dagoenean eta kontzientzian dagoenean, indarkeriaz eta intolerantziak erreakzionatzen duela? Ez dut sinetsi nahi.

Herritar donostiarrak pertsona irekiak eta toleranteak dira. Intolerante-talde txiki batek bakarrik egiten du zarata eta kalte handia, bizitzako beste alderdi batzuetan bezala.

Guztion eskubideak defendatzeko gaude. Behar den pedagogia egiteko gaude, sortzen diren korranteak aldatzeko eta hasten diren suak itzaltzeko. Guztion artean gizarte hobea egiteko gaude hemen.

**Cristina Lagé Manich**

Aniztasuneko, Inklusioko eta Berdintasuneko zinegotzi delegatua







# SARRERA

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Bulegoak aginduta egin da dokumentu hau, 2023ko urtarrilak leik abenduaren 31ra arte Donostian LGTBI+fobiaren ondorioz gertatu diren intzidentziak, erasoak, diskriminazioak eta gorroto-delituak biltzeko asmoz. [Donostian 2021/2022an izandako intzidentzia LGTBI+fobikoetarako buruzko txostenaren](#) jarraipena da, 2023an argitaratua. Beraz, aldagai eta adierazle berak jasotzen ditu. Horrela, azterketa konparatu bat egin daiteke, epe laburreko joerak aztertzeko eta epe ertainekoak aurkezteko.

[Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko 2022eko txosteneko](#) datuek agerian uzten dute erregistratutako delituak esponentzialki handitu direla, 277tik 2021ean 438ra 2022an. Izan ere, sexu-orientazio eta -identitateagatiko gorroto-delituak 73 izatetik 96 izatera pasa dira, 2021ean baino % 31,5 bat gehiago, beraz, bigarren kausa izaten jarraitzen dute. Era berean, [Espainian 2022ean izandako gorroto-delituaren bilakaerari buruzko txostenak](#) ere erakusten du motibazio hori bigarren kausa dela estatuan, eta % 76,64 handitu dela 2021tik 2022era. Gainera, ikuspegik argitaratutako [Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzeptzioak eta jarrerak azterlanean](#) (2022) aipatzen da EAEko biztanleen % 50 izan dela iruzkin LGTBI+fobikoek lekuko, % 42,5 irainena, % 22 LGTBI+ pertsonen bakartzearena, % 17,9 mehatxuena eta % 13,5 eraso fisikoena.

Informazio horrek eta datuen igoerak agerian uzten dute egoera LGTBI+fobikoak behar bezala erregistratu, analizatu eta aztertu behar direla, *ad hoc* erantzunak diseinatzeko. Erantzun horiek sexu- eta genero-disidentziek oraindik ez dituzten eskubideak eta askatasunak bermatzeko izan beharko dira.

Garrantzitsua da txosten honetan jasotako intzidentziak ez ulertzea gertaera isolatu eta puntualak bezala, ezta diskurtso

LGTBI+fobikoetatik urrun dauden gertakariak bezala ere. Hori guztia urteetan zehar errepikatzen den egiturazko indarkeria baten parte da. Indarkeria hori meta-egonkorra da, hau da, indarkeria adierazteko moduak aldatzen diren arren, indarkeria helburu berarekin mantentzen da: statu quo-ari eustea. Gainera, azken urteotan, gorroto-diskurtsoak gorroto-delituaren aurreko pausua dira eta hauei zilegitasuna ematen dieten tresna eraginkorra.

Beste aldetik, dokumentu honetan ez da aipatzen gertakariaren biktimak edo egileak<sup>1</sup> identifika ditzakeen daturik, eta, beraz, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna errespetatzen dira. Hala ere, azpimarratu behar da errealitatea interseksionala dela, eta, beraz, hala eraso egiten duten pertsona batzuei nola biktima batzuei hainbat ezaugarri eragiten dietela, zeharka, eta horiek zapalkuntzaren kausa izan daitezkeela, hala nola: jatorria, kultura, adina, dibertsitate funtzionala, gizarte-bazterketa jasateko arriskua, eta abar.

Beraz, txosten laburra da hau, hirian sexu- eta genero-dibertsitatea garatzea zailtzen duten egoerak kuantifikatu eta irudikatzea xede duena. Deskribatzen diren gertakariak giza eskubideak erabat baliatzeko eta bizikidetzan lortzeko zer lan egitea falta den erakusten dute.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipatzea, segur aski, hemen argitaratuak baino askoz intzidentzia gehiago izango direla. Dokumentu honetan, hala gizarte-entitateetan eta komunikabideetan nola erakunde publikoetan salatu direnak baino ez dira jasotzen. Beraz, beharrezkoa da infrasalaketaren fenomenoak azaltzea eta kontuan hartzea. Era berean, azaldu behar da iturri bakoitzeko datu- bilketa desberdin egiten dela, eta, kasu batzuetan, ez dela zehatza.

---


1. Dokumentuan, "egile" hitza erabiltzen da intzidentzia nork eragin duen adierazteko. Batzuetan, "erasotzaile" hitza ere erabiltzen da, erasoak baita.



# ORIENTABIDE BATZUK <sup>2</sup>

Mendebaldeko gizarteen egungo sexu-genero sistema hegemonikoa dimentsio hauen erlazioan oinarritzen da: sexua, generoa (identitatea eta adierazpena) eta desira. Hona hemen zer jotzen den arauaren barrukotzat eta zer ez:

## Sexu-genero sistema (hiru dimentsio: sexoa, generoa, desira)



Sexu-genero sistemaren dimentsiak. 2018 Kualitate Lantaldea eta Aldarte.

2. Kontzeptu gehienak glosarioan definitzen dira (2. eranskina)





Beraz, zis pertsonak, jaiotzean esleitutakoaren arabera genero-identitatea garatzen dutenak eta, gainera, heterosexualak direnak, onarpena eta pribilegioak dituzte gizartean. Hala ere, nabarmendu behar da faktore patriarkalak eragiten duela emakume-gizon rola bereiztea, eta emakumeak gizonen mende jartzen dituela. Era berean, arauz kanpoko aukera guztiek pairatzen dute desberdintasun hori.

Beraz, arauaren barruko aukerak bitarismoa, zisexualitatea eta heterosexualitatea dira, bai eta femeninotzat hartzen dena maskulinoaren aurrean gutxiatea ere. Gizarte-sistema zisheteronormatiboa da, eta araua errepikatzen ez duten pertsonak baztertzeko dituzten erasoak, diskriminazioak eta/edo bazterketak jasateko arriskua baitute.

Hala, bada, LGTBI+ sexu-disidentziak eta genero-disidentziak biltzen dituen kategoria analitiko gisa erabiltzen da. Argi dago sigla bakoitzaren errealitatea askotarikoa dela eta fikzio bat dela, etengabe aldatzen ari dena eta egoera asko biltzen dituena. Horrenbestez, LGTBI+ kontzeptua baliatuz, LGTBI+fobia kontzeptua erabil dezakegu, gorroto-delituak eta zisheterodisidentzien aurkako gaitzespen-, diskriminazio- eta bazterketa-gertakariak biltzeko.

Laburbilduz, txosten honen xedea 2023an hirian gertatu diren oinarri LGTBI+fobikoko intzidentzia guztiak dira, hau da, arau zisheterosexistan oinarritutako intzidentzia guztiak.







# EMAITZAK

Honako emaitza hauek informazio-iturri hauei egindako kontsultetatik atera dira:



## Iturriak

- [AMPGYL Elkartea](#)
- [Gehitu Elkartea - Eraberean sarea, arraza-, etnia- edo nazio- jatorriagatiko eta sexu-orientazio edo -identitateagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurkakoa \(Eusko Jaurlaritza\)](#)
- Magala Familia Homoparentalen Elkartea
- [Loratuz lotu Elkartea](#)
- [Naizen Elkartea](#)
- Sehaska Familia Homoparentalen elkarte
- [Transexualidad Euskadi Elkartea](#)
- [Hiruki Larroxa Kooperatiba](#)
- Donostiako koordinadora transbollomarifeminista
- [Ozen LGTB Liga](#)
- [Donostiako Piratak](#)
- [EHGAM Mugimendua](#)
- [LGTBI Behatokia](#)
- [Berdindu Zerbitzua Gipuzkoa](#)
- E-maila
- [Gizarte Ekintza Zuzendaritza. Donostiako Udala](#)
- [Berdintasun Saila. Donostiako Udala](#)
- [KIUB: Kontsumitzailea Informatzeko Udal Bulegoa. Donostiako Udala](#)
- [Udaltzaingoa. Donostiako Udala](#)
- [Ertzaintza](#)
- [SFUS. Gizarte Larrialdien Koordinazioko Zerbitzua. Gipuzkoako Foru Aldundia](#)
- [Justizia. Biktimari laguntzeko zerbitzua. Donostia / San Sebastián](#)
- [Osakidetza. Euskal osasun sistema \(PEAZ eta Berdintasuna\)](#)
- [Kontsumobide Donostia. Eusko Jaurlaritza](#)
- [Ararteko. Euskadiko Herriaren Defendatzailea. Eusko Jaurlaritza](#)
- [Argia](#)
- [Berria](#)
- [Diario vasco](#)
- [Donostitik](#)
- [Irutxuloko hitza](#)
- [Naiz](#)
- [Noticias Gipuzkoa](#)

Hurrengo tauletan 2023an erregistratutako intzidentziak<sup>3</sup> azaltzen dira<sup>4</sup>. Guztira 15 intzidentzia jaso dira. Salaketak intzidentziaren kausaren arabera antolatu dira, hau da, intzidentzia eragin duen fobiaren arabera<sup>5</sup>.

3. Intzidentzia kontzeptua erabiltzen da zabalena delako, baina garrantzitsua da gogoratzea egoera batzuk gorroto-delituak direla.

4. Egoerak labur-labur deskribatu dira. Deskribapen osoa 1. eranskinean dago.

5. Intzidentzia kategorizatu da, eta ez biktima; horrela, egiturazko kausak ikusarazten dira, eta fokua biktimarengandik kentzen. Adibidez, intzidentzia bat izan daiteke homofobikoa eta biktima homosexuala ez izatea, eta abar.

# 2023an Donostian gertatutako intzidentzia LGBTI+fobikoak



KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIK. GENEROA.	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
23.15	12/2023	Udaltzaingoa	Etxebizitza	Mehatxuak	Homofobia	G	G+E <sup>6</sup>	Bikote heterosexual batek bere pisukideari mehatxu egin dio honen orientazio sexualarengatik.
23.4	08/2023	Ertzaintza	Bide publikoa	Eraso fisikoa eta hitzekoa (irainak)	Homofobia	G (2)	G (2)	Bikote homosexual batek musu eman du eta bi gizonek harri bat bota diete, iraindu eta haien atzetik dabiltza.
23.5	08/2023	Ertzaintza	Bide publikoa	Eraso fisikoa eta hitzekoa (irainak)	Homofobia	G	G	Gizon bat ukabilkada bat beste bati ematen saiatu da, eta, aldi berean, "marikoia" iraindu dio behin baino gehiagotan.
23.9	02/2023	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezo erasoa (irainak)	Homofobia	Ez dakigu	G	Gizon batek "marikoia" iraintzen ditu behin eta berriz denda bateko langileak.
23.11	06/2023	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Eraso fisikoa eta hitzekoa (irainak)	Homofobia	Ez dakigu	G (2)	Bi gizonek txistua bota eta "marikoia" iraina ohikutzen diete behin eta berriz gainerako oinezkoiei.
23.12	06/2023	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Hitzezo erasoa (irainak)	Homofobia	Ez dakigu	G	Gizon batek poliziarenganako irainak oihukatzen ditu, horien artean "marikoia".
23.6	08/2023	Ertzaintza	Etxebizitza	Eraso fisikoa eta hitzekoa (irainak) eta mehatxuak	Homofobia (eta arrazakeria)	G	G	Gizon batek lepotik heldu du bere pisukidea, "marikoi putoa", "zoaz zure herrira" irainak esanez, eta konorterik gabe utzi du.
23.3	06/2023	Ertzaintza	Bide publikoa eta kafetegia <sup>7</sup>	Eraso fisikoa eta hitzekoa (irainak)	Homofobia (eta arrazakeria)	G	G	Gizon batek hainbat modutan iraintzen ditu langile batzuk ("lizunezko sudakak", etab.). Oinezko batek bitartekari lanak egin nahi ditu eta zaplazteko bat jaso du. Gainera, "marikoi" irainarekin mehatxatzen du.

6. G=Gizona eta E=Emakumea.

7. Datuen prozesamenduan "Bide publiko" gisa sailik lantzen da.



# 2023an Donostian gertatutako intzidentzia LGTBI+fobikoak



KOD.	DATA	ITURRIA	TOKIA	TIPOLOGIA	KAUSA	BIK. GENEROA.	EGILEAREN GENEROA	DESKRIBAPEN LABURRA
23.7	08/2023	E-maila <sup>8</sup>	Bide publikoa	Eraso fisikoa (larteria) eta hitzekoa (mespretxua)	LGTBI+fobia	E	G	LGTBI+ kolektiboaren aldeko kartelak itsasten ari zen ekintzaile bat, ortzadarraren kamiseta jan ten zuena, jazarri eta beldurtu egin dute hitzez: "nire auzoa ez duzu ukituko", "zoaz hemendik".
23.14	07/2023	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Kalte materialak	LGTBI+fobia	G	G	Gizon batek ortzadarraren bandera ostu dio beste bati, eta korrika atera da.
23.10	02/2023	Udaltzaingoa	Bide publikoa - Hezkuntza zentroa <sup>9</sup>	Diskriminazioa	LGTBI+fobia	Ez dago	E	Emakume bat ikastetxera joan da pankarta bat jartzera. Pankarta horretan esaten zuen ikastetxea ikasleen homosexualitatea bultzatzen ari zela.
23.8	11/2023	Berdindu Zerbitzua	Hezkuntza zentroa	Hitzezo eraso (mespretxua) eta diskriminazioa	Transfobia	E	E	Irakasle batek hitzaldi transfobia egin du gela batean, ikasle trans bat dagoen gelan. Familiak keak aurkeztu arren, ikastetxeak ez du egoera kudeatzen. Azkenik, Berdin du zerbitzuak eta Hezkuntzako Ikuskapen Zuzendaritzak hartu dute parte.
23.2	05/2023	Ertzaintza	Diskoteka	Eraso fisikoa eta hitzekoa (mespretxua)	Transfobia	E (2)	G	Diskoteka bateko komunetan, langile batek bi lagun eraso eta bota ditu horietako baten identitatea eta genero-adierazpena dela eta.
23.13	06/2023	Udaltzaingoa	Bide publikoa	Diskriminazioa	Transfobia	G	G	Aita batek semea kalean utzi du. Ez dakigu zein den arrazoia zehatza, baina adingabe trans bat da.
23.1	08/2023	Berdintasun saila. Donostiako Udala	Taberna	Eraso fisikoa	Transfobia, enebefobia edo luma-fobia. Ez da zehazten <sup>10</sup> .	Queer (3)	G (Bat baino gehiago. Ez da zehazten)	Eraso fisikoa beirazko edalontziekin, 3 trabestiei taberna baten barruan.

8. Biktimak ikerketaren posta elektronikoa ematen du gertaeraren berri, Udaleko sare sozialetatik bidaltzen den mezu masibo bati esker.

9. Datuen prozesamenduan "Bide Publiko" gisa baino ez da lantzen, ikastetxearen instalazioetatik kanpo gertatu baita.

10. Datuen prozesamenduan, "Transfobia" gisa lantzen da, espektro zabalean ulertuta.




Jarraian, hainbat datu ematen dira, formatu grafikoan: bai aldagai bakarreko informazioa, bai aldagai gurutzatuak <sup>11</sup>.




## Intzidentziak, guztira, hilabeteka

1. grafikoa



## Intzidentziak, guztira, lekuaren eta leku motaren arabera

2. grafikoa




<sup>11</sup>. Nahasbidea ekar dezaketen grafikoak baino ez dira azaltzen.






## Intzidentziak, guztira, kausaren arabera

3. grafikoa



## Intzidentzien ehunekoa, intzidentzia-eraso motaren arabera

4. grafikoa








## Intzidentziaren egilearen generoa, guztira

Pertsonen arabera kontabilizatuak <sup>12</sup>

5. grafikoa




## Ehunekoa, egileen generoaren arabera

Kasuen arabera kontabilizatuak

6. grafikoa

Erasoa eragin duten 18 pertsonetatik, 14 gizonetzkoak dira, 3 emakumezkoak eta 1 gizonetzkoak, baina ez dakigu kopurua (5. grafikoa). Kasuen portzentajeari dagokionez, egoeren % 60an egileak banakako gizonetzkoak dira, eta egoeren % 20tan taldean jarduten dute. Bestalde, kasuen % 13an emakumeak dira egileak, eta ia % 7an gizonak eta emakumeak.



<sup>12</sup>. Egile edo biktima kopurua ezagutzen ez den kasuetan, 1 bezala kontabilizatzen da..






## Egilearen generoaren eta kausaren arteko erlazioa

### Kasuen arabera kontabilizatua


7. grafikoa



## Egilearen generoaren eta intzidentziaren tipologiaren arteko erlazioa

### Kasuen arabera kontabilizatua

8. grafikoa






## Egile gizonezkoa eta intzidentziaren tipologia

### Kasuen arabera kontabilizatua

9. grafikoa


Bi kasu bakarrik daude egilea emakumea dela. Lehenengoan diskriminazio gisa sailkatzen da, eta bigarreanean, berriz, bereizkeria eta hitzeko erasotzat. Mehatxuak egiten dira egileak gizonezkoak nahiz emakumezkoak diren kasu bakarrean.






## Biktimen generoaren ehunekoa

10. grafikoa



## Biktimaren generoaren eta intzidentizaren tipologiaren arteko erlazioa


11. grafikoa






## Kausa kopurua, iturriaren arabera <sup>13</sup>

12. grafikoa



## Iturri bakoitzeko intzidentzia kopurua, kausaren arabera

13. grafikoa



13. 5 iturrik bakarrik dute erregistratutako kasuren bat, kontsultatutako 32 iturrietatik.






# EMAITZA KONPARATUAK


## Urtean izandako intzidentzien kopurua: 2021, 2022 eta 2023

14. grafikoa




## Intzidentzia kopurua, hilaren arabera, 2021ean, 2022an eta 2023an

15. grafikoa



## 2021, 2022 eta 2023an taldean egindako intzidentzien kopurua


16. grafikoa






## 2021, 2022 eta 2023 urteetan izandako intzidentzien ehunekoa, egile(ar)en generoaren arabera

17. grafikoa



## 2021, 2022 eta 2023ko intzidentzien ehunekoa, kausaren arabera<sup>14</sup>

18. grafikoa



14. Grafikoa argia izan dadin, kasu bakat bat duten kausak ez dira islatzen.







# ONDORIOAK

## 1

**Intzidentzia gehien izan dituzten hilabeteak ekaina eta abuztua dira.** Hortaz, aurreko txostenean adierazi bezala, esan daiteke nolabaiteko urtarokotasuna dagoela. Otsailean udazkeneko eta neguko gainerako hilabeteetan baino intzidentzia gehiago izaten dira. Argi eta garbi dago udan askoz gehiago izaten direla, baina ez dirudi intzidentzia horiek gaueko esparruekin lotuta daudenik. Beraz, esan dezakegu ugaltzearen arrazoia dela gizarte-interakzioa handiagoa dela udan. Horixe esaten da [Gorrito arrazista, xenofobo, antigitano eta LGBTIfobikoko gertakarien aurrean tokian-tokian jarduteko gida](#). Hala ere, Euskadiko 2022eko gorrito-istiluen txostenean esaten da hori ez dela erreferentziatzko aldagiririk.

Azterlan honetan erabilitako teknikak mugak ditu, hala nola sare sozialetan gertatutako intzidentziak edo salatu ez direnak islatzeko zailtasuna. Beraz, aipatu behar da beste txosten batzuetan, zeinetan teknika desberdinak erabiltzen diren, hala nola [Ikusguneren VI. Txostenean](#) (2022)<sup>15</sup>, ondorio ezberdinak daudela, horien artean: hilabete hotzenak intzidentzia gehien dituzten hilabeteak direla.

Beraz, ondorioztatzen da Donostian uda dela intzidentzia LGBTIfobiko presentzial gehien izaten dituen garaia.

---

15. Lehenago izen osoarekin ezaguna: Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko txostena. Azterketa horretan erabiltzen diren teknikak ere beren mugak dituzte.

## 2

**Eremu publikoetan, zehazki bide publikoan, gertatzen dira intzidentzia gehien,** 15 kasuetatik 10etan. Espazio erdipublikoak batuz gero, 13koa da zifra hori (% 86,7). Ondoren eremu pribatuak daude, hau da, etxeak (% 13,3). Espazioen korrelazio hori, eta bide publikoa lekurik arriskutsuena bezala, 2021/2022 txostenean ere ondorioztatu zen.

## 3

**Homofobia da, oraindik ere, kausarik zabalduena:** 8 kasu daude, hau da, % 53,3. Ondoren, arrakala handiarekin, transfobia 4 kasu daude, hau da, % 26,6. Antzeko datuak aurkeztu zituen [Ikusgunek 2022ko txostenean](#): 10 kasu homofobia, 5 transfobia eta 1 LGBTIfobia. Beraz, esan dezakegu EAEko bi hiriburutako joerak antzekoak direla.

## 4

**Intzidentzien % 42an ahozko erasoak jasotzen dira.** Eraso-mota zabalduena da, nahiz eta batzuetan begi-bistakoa den "marikoi" iraina nagusitasun zisheterosexual mekanismo gisa erabiltzen dela, eta ez biktimarekiko/biktimizekiko elementu iraingarri gisa. Ondoren datoz eraso fisikoak (% 33,3), diskriminazioa (% 12,5) eta mehatxuak (% 8,3). Beraz, intzidentzia gehienak eraso zuzenak dira<sup>16</sup>. Nabarmenezkoa da gertakarien herenean eraso fisiko bat gertatzen dela. Datu hori pixka bat handitu da 2021/2022ko txostenarekin alderatuta, % 29koa izan baitzen. Hala ere, tipologiaren korrelazioa antzekoa da, eta hitzezko erasoak ohikoenak dira, eta, ondoren, eraso fisikoak.

---

16. Adierazi behar da eraso berean hainbat eraso mota gerta daitezkeela, eta, beraz, % 100 baino gehiago.



## 5

15 egoeretan, 18 pertsonak eragiten dute intzidentzia edo erasotzaileak dira; izan ere, banaka nahiz binaka aritzen dira. **Gertaera edo eraso gehienak gizonak egiten dituztela** ondorioztatzen da, gertakarien % 80 baino gehiago izaten baitira. Alde horretatik, ondorioztatzen da maskulinitasunaren eredu hegemonikoa funtsezko faktorea dela.

2021/2022ko txostenean, emakume erasotzaileak espektro homofoboan zeuden batez ere; oraingoan, aldiz, homofobian eta transfobian, baita LGBTI+fobian ere. Gizonezko erasotzaileen kasuan, arrazoi nagusia homofobia da, eta atzetik datoz transfobia eta LGBTI+fobia.

Hitzeko erasoak da gizonak gehien eragiten duten eraso-mota, eta, antzeko kopuruan, eraso fisikoak. Emakumeek ez dute eraso fisikorik egiten.

## 6

**Kasuen % 50ean biktimaren generoa gizona da, % 18an emakumea eta % 6,3an disidentea (Trabestiak).** Biktimak, gehienetan, bakarrik edo bikotekidearekin egoten dira. Aipatzekoa da 2023ko kasuen % 25ean ez dagoela edo ez dakigula biktimaren generoa; beraz, ezin da esan datu hori asko aldatu denik aurreko txostenarekin alderatuta.

Emakumeak eta gizonak erasotzeko moduari dagokionez, ez dago ia alderik.

## 7

**Donostiako Udaltzaingoa da kasu gehien ematen dituen iturria**, eta atzetik Ertzaintza. Garrantzitsua da esatea salaketa bat bera ere ez dela errepikatzen agente edo zerbitzu desberdinetan, hau da, salaketa jartzen duen pertsonak errekurtsio bakar batean jartzen du. Bestalde, 2023an, hedabideek ez dute intzidentzia LGBTI+fobikoko berri eman hirian.

Deigarria da txosten bakoitzean intzidentziak izan dituzten iturrien kopurua. 2021/2022koan, 10 baliabidek zuten kasuren bat; 2023an, ordea, 5 iturrik bakarrik zuten zerbait erregistratua. Hala ere, nabarmentzekoa da intzidentzia LGBTI+fobikoen kopuru osoa antzekoa dela hiru urteetan.

Ondorioztatzen da mota honetako azterlanak, iturri anitz dituztenak, bai instituzionalak bai sozialak, beharrezkoak direla, diziplina anitzeko entitateetan erregistratutako intzidentziak biltzen baitituzte, errealitate osoagoa islatuz. Adibidez, Euskadiko gorroto-gertakarien txostenean erabilitako datuak Ertzaintzak eta Eraberean sareak jasotakoak dira. Bi iturri horiek 5 intzidentzia dituzte Donostian 2022an, eta 2021ean, berriz, 2. Hala, azterketa horren arabera, LGBTI+ kolektiboarekiko gorroto-delituak nabarmen handitu ziren hirian, bikoitza baino gehiago, baina, 2021/2022ko txostenean frogatu zen bezala, bi urte horietan gertakari LGBTI+fobikoen kopurua, 19 eta 18 hurrenez hurren, antzekoa erregistratu zen.







Halaber, sarreran azaldu den bezala, kontuan hartu behar da infrasalaketaren fenomenoak. Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentziaren arabera, % 80 - % 90ra irits daiteke<sup>17</sup>. Beraz, urtean izan diren 15 kasuez gain, ziurrenik, Donostian, askoz ere intzidentzia, eraso, diskriminazio eta gorroto-delitu gehiago izan dira, motibazio LGBTI+fobikoa dutenak. Hain zuzen, [Donostiako LGBTI+ errealitateari buruzko txostenari](#) (2023) erreparatzen badiogu, inkestari erantzun zioten 254 LGBTI+ pertsonetatik, % 76,4k adierazi du azken 5 urteetan diskriminazioaren bat jasan duela. Horrek esan nahi du 194 LGBTI+ pertsonak intzidentzia bat bizi izan dutela hirian, eta hiruko erregela erraz bat aplikatuz gero, hurbilketa gisa, urteko ia 39 diskriminazio gertatzen direla batez beste esan nahiko luke. Horrela, agerian geratzen da erasoak jasaten dituzten pertsona asko ez direla inongo erregistrotara joaten.

17. Hala esaten da «Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero identitatearen aurka izandako gertakariei buruzko V. urteko txosten»ean (2021). Infrasalaketari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, gorroto-delituak Espainian izan duten bilakaerari buruzko txostena ere kontsulta daiteke, bai 2021koan bai 2022koan.

## Ondorioak 2021, 2022 eta 2023

**Gertakarien kopurua antzekoa da**, baina jaitsiera txiki bat izan da: 19tik 2021ean, 15era 2023an. Era berean, aipatu den bezala, erasoak goranzko joera du udan.

Taldeko erasoak gizon taldeek edo gizon eta emakume bikoteek egiten dituzte. Hala ere, 2021etik 2023ra, **pertsona batek baino gehiagok egindako erasoak** 7 kasutik 4ra **jaitsi dira**. Gainera, 2021ean talde handietatik bikoteetara aldatu da (2023), eta horrek egileen kopurua nabarmen murriztea ekarri du.

Era berean, **gertakarien egileak gizonak dira oraindik ere**, 2023an % 80 kasuen egileak izatera iritsi dira. Aipatzekoa da 2023ko intzidentzia guztietan autorearen generoa erregistratzea lortu dela, aurreko txostenean ez bezala.

Aurreko urteetan baino % 20 gutxiago izan arren, **homofobia da oraindik ere kausarik zabaldiena**. Jaitsiera horrek homofobia eta transfobia kasuak hurbiltzen ditu; izan ere, transfobia bigarren arrazoia bezala mantentzen da, eta ez du hain nabarmen gutxitu. LGBTI+fobia kasuak, oro har, gorrotozko diskurtsoen zabalpenarekin lotzen dira.

Beraz, datuak antzekoak dira, oro har, eta oraindik goiz da joerak baieztatzeko.





# GOMENDIOAK

Gomendio hauek Donostiako Udalaren eskumenekoak dira, baina beste erakunde eta entitate askok ere sustatu ditzakete. Iradokizunak hiru ardatzetan banatzen dira: ikertzea, prebenitzea eta erantzutea.

## Ikertzea

### 1

#### **Donostian, urtero edo bi urtean behin, intzidentzia LGTBI+fobikoen txostena egiten jarraitzea.**

Horrela, erregistratzeko eta biltzeko sistema hobetu dhal izango da; izan ere, Ikusgunek eta EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedrak<sup>18</sup> adierazten duten bezala, ikerketak errepikatuz metodoa hobetzen da, errealitatea fideltasun handiagoz islatzea lortuz eta, ondorioz, eragiteko gaitasun handiagoa garatuz. Bestalde, txosten hori egiten jarraitzeak balioko du hirian LGTBI+fobiari pultsua hartzeko, epe ertain-luzeko joerak aztertuz eta ezartzen diren neurriek eragiteko duten gaitasuna egiaztatuz.

Lehenengo neurri gisa, 3. eranskineko txantiloia bidez, datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzea proposatzen da. Txosten honetarako kontsultatutako edozein eragileri bidali dakiok edo, bestela, Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Negoziatuari. Negoziatuaren kasuan, komeni da postontzi bat jartzea herritarren eskura, intzidentziak hara bidaltzeko. Aldez aurretik ezagutzera eman beharko litzake eta erreferente bihurtu.

### 2

#### Honako gai hauetan sakonduko duten **ikerketa espezifikoak sustatzea:**

- Transexualitate-egoeran dauden pertsonen gizarte eta lan egoera, bereziki emakume transena\*<sup>19</sup>.
- Hiritarrek LGTBI+fobiarekiko dituzten pertzepzioen inguruan eta intzidentziak edo eraso LGTBI+fobikoak ikusten dituzten donostiarren erreakzioak.
- Xehetasun handiagoz aztertzea LGTBI+fobia: adin-tarteak, asteko egunak, hiriko erreferenteen adierazpen LGTBI+fobikoak, bilaketa aktiboa sare sozialetan...

18. Ikusgune behatokiari dagokio Gasteizen LGTBI+fobia dela-eta izaten diren intzidentzien txostenak egitea, urtero, eta EHUko Katedrari, berriz, Euskadin izaten diren gorroto-istiluen txostenak.

19. 2022ko ekainaren 23an onetsia, Udalbatzaren ohiko bilkuran.



## Prebentzioa eta arreta

**Udal-estrategia bat garatzea, LGTBI+fobiaren prebentzio- eta arreta-prozesuak ezarriko dituen**, martxan dauden tresna, baliabide eta zerbitzuekin eraginkortasunez artikulatuz. Horretarako, LGTBI+ politika-plan global bat <sup>20</sup> sortzea proposatzen da, aurreko alderdi hori barne hartuko duena, ikuspegi interseksionala <sup>21</sup> izango duena eta hainbat zuzendaritzetan zeharkatuko dena, hala nola gizarte-ekintza, hirigintza jasangarria, osasuna eta ingurumena, lehendakaritza... <sup>22</sup> Adituekin eta disidentzia sexualen aldeko gizarte-mugimenduetako eragile estrategikoekin batera egitea proposatzen da. Alde horretatik, ezinbestekoa izango da gaiari lotutako eragile anitzeko espazioak bultzatzea. Era berean, plana diseinatzeaz gain, jarraipen-batzorde bat sortzea gomendatzen da. Beraz, LGTBI+fobiaren aurkako udal-estrategia LGTBI+ politika-planean sartzea proposatzen da.

LGTBI+fobiaren PREBENTZIOAREN esparruan, honako ekintza espezifiko hauek gomendatzen dira:

- ✓ **Udal-administrazioan azkar eta modu egokian ezartzea** [otsailaren 15eko 4/2024 Legea](#), [persona transak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa](#), izaera autonomikoa duena, bai eta [trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrari eta LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzeari buruzko otsailaren 28ko 4/2023 Legea](#) ere, estatu mailakoa. Alde horretatik, funtsezkoa izango da Udalaren eskumeneko alderdiei kasu egitea.
- ✓ **Mezu instituzionalen bidez, maskulinitatea deseraikitzen saiatzea**, gizonetako erreferente berriak babestuz eta **aniztasuna defendatuz**.
- ✓ **Sexu eta genero aniztasunari buruzko prestakuntza etengabe ematea** Udalari <sup>23</sup> lotutako sail, enpresa publiko eta erakundeetako langile publikoei. Udalak diruz lagundutako zerbitzuak sartzea proposatzen da ere bai.
- ✓ Jarrera LGTBI+fobikoak eta matxistak baztertzeko **ahaldunak diren testuinguruak sortzea** (komunitateak, establezimenduak, jaiak, kultura-guneak...).
